



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO OTSAILAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.02.07.
Ordua: Arratsaldeko 18:30ean.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Purificacion Leiza Petirena andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Lorenzo Telletxea Sansiñena jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.- Pedro M^a Larrechea Ordoqui: oihan probetxamendu eskaerak.
- 5.- Pelle Ttiki: pailazoen saioari buruz.
- 6.-Herri Urrats: diru laguntza eskaera..
- 7.-Nafarroa Oinez: diru laguntza eskaera.
- 8.-Arantzako Guraso Elkarte: diru laguntza eskaera.
- 9.-Luis Ricardo Cumba Cumba jauna: bestetan postua jartzeko baimen eskaera.
- 10.-Erortza Eskiboko pistan: Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskaera
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko urtarrilaren 10ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.-PURIFICACION LEIZA PETRIRENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Purificacion Leiza Petrirena andreak Aierdi alderdian pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 382. eta 383. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Purificacion Leiza Petrirena andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazioa egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-LORENZO TELLETEXEA SANSIÑENA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Lorenzo Tellechea Sansiñena jaunak Simonen Borda alderdian 6 zuhaitz (lizarra, gerezi eta sagatsa) probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (5. poligonoko 31 A. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Lorenzo Tellechea Sansiñena jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazioa egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.- PEDRO M^a LARRECHEA ORDOQUI: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERAK.

Eskaera hau mahai gainean uzten da hurrengo bilera arte.

5.- PELLE TTIKI: PAILAZOEN SAIOARI BURUZ.

Koldobike Gorostiza andreak azaldu du, aurten ere, apirilaren 5ean, pailazoen emanaldia prestatzen hasi dela Pelletikirako dirua biltzeko. Pelletiki eta Udalaren artean lan talde bat sortuko da gaia lantzeko.

6.-HERRI URRATS: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Herri Urratsek aurkeztutako idatzia, Iparraldeko 2014ko festa antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herri Urratseri 100,00 euroko diru laguntza ematea.

7.-NAFARROA OINEZ: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Zangoza Ikastolak aurkeztutako idatzia, Nafarroa Oinez 2014rako diru laguntza eskatuz.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Zangozako Ikastolari 200,00 euroko diru laguntza ematea.

8.-ARANTZAKO GURASO ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Gai hau mahai gainean uzten da Guraso elkartearekin bilera egin arte.

9.-LUIS RICARDO CUMBA CUMBA JAUNA: BESTETAN POSTUA JARTZEKO BAIMEN ESKAERA.

Ikusirik Luis Ricardo Cumba Cumba jaunak aurkeztutako idatzia, baimen eskaera eskatuz bestetan postu bat jartzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Eskatzaileari postua jartzeko baimena ez ematea leku faltarengatik.

10.-ERORTZA ESKIBOKO PISTAN: NAFARROAKO GOBERNUARI DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Eskibo eta Lorbido baserrien artean erori den harriak bidea itxi du zati batean eta kendu behar da. Halaber, erortzaren ondorioz hormigoia hautsi da.

Kontuan hartuz obra 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana eta, konkretuki, 5/2009 Foru dekretua, urtarrilaren 19koa, 2009-2013 aldirako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duena.

Kontuan hartuz epe laburretan egin beharreko obrak direla bide publikoak, eta konkretuki, jendea iraunkorki bizi den populazioguneei sarbidea emateko aurreikusitako obrak, aipatutako bide horiek hobetzeko obrak eta udalaren edo kontzejuaren eskumeneko zerbitzuei lotutako horniduretara iristeko erabiltzen diren herri bideak hobetzekoak, egoera txarrean egoteaz gain, horniduretara iristeko beste bide egokirik ez badago.

16/2008 Foru legearen 14. artikuluan aurreikusten den moduan toki azpiegiturak konpondu edo berritzeko obrak larrialdikotzat jotzen direnean, toki entitateek Nafarroako tributuen parte hartzeko funtsaren kargura finantzatu ahal izanen dira, Toki Administrazioko Departamentuak emanen duen ebazpenaren bidez. Ebazpen horretan gastu konpromisoa finkatuko du. Toki entitateek eskabidea aurkeztu beharko du horretarako larrialdia zergatik sortzen den azaltzen duen ziurtagiriarekin batera. Halaber, egin behar den gastua adierazi behar du eta erregelamendu honen 39. artikuluan aipatutako agiriak aurkeztu beharko ditu, salbuesenezko araubidea eskazten badu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Eskibo eta Lorbido baserrien arteko bidean izan den erortza moldatzea larrialdikotzat jotzea.
- 2) Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioko Departamentuari 2009-2012 Toki Inbertsioen Planean sartzeko eta dagokion diru laguntza emateko eskatzea.

Koldobike Gorostiza andrea ateri da bileratik.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 2tik 10. arteko ebazpena).

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

13.-SAKABANAKETA ETA ESPETXE POLITIKOA HONEKIN AMAITZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Irakurri da sakabanaketa eta espetxe politika honekin amaitzeko adierazpen instituzionalerako proposamena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ondorengo adierazpena onartzea:

“Arkaitz Bellon preso elorritar gaztearen heriotzaren berri lazgarria jaso genuen atzo. Gaur, egoeraren larritasunak eta urgentziak hala aginduta, udal honetatik zera adierazi nahi dugu:

Lehenik eta behin, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu Arkaitz Bellonen senide eta lagunei. Une lazgarri hauetan, gure babes eta berotasuna adierazi nahi dizkiegu.

Bere herritik mila kilometrotara hil da Arkaitz Bellon, Puerto Ieko espetxean, zigorraren 2/3 beteta izan arren. Beraz, kalean egon behar zen. Mila kilometro hauen atzean dagoen errealitateari erreparatzen badiogu, giza eskubideen urraketa eta mendekuan oinarritutako espetxe politika gizagabe eta krudela da gaur egun protagonista nagusia, eta Arkaitzen heriotzaren erantzule zuzena.

Egoera hau beti izan baldin bada bidegabea, berau mantentzea erabat zentzugabea eta onartezina bihurtzen da gure herrian zabaldu den errealitate berrian. Arkaitzi gertatutakoa, edonori edonoz gerta daiteke eta ez du gehiago gertatu behar.

Gauzak honela, salbuespeneko espetxe politika honekin eta sakabanaketarekin amaitzea eskatzen dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez. Sakabanaketa eta espetxe politika honekin amaitzeko garaia da. Aski da esateko unea da.

Horretarako, eskaera luzatzeaz batera, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu eskubide guztien alde egiten dugun indarrek bat egitea eta kalera ateratzea, sufrimenduaren soka luze honekin lehenbailehen amaitzeko.

Ondorioz, “Espetxe politika honi ez, sakabanaketa amaitu” lelopean, hainbat eragile politiko, sindikal edo sozialek deitutako mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen ditugu herritarrak.

Egun indarrean dagoen espetxe politika eta sakabanaketarekin amaitzeko gu guztiok beste urrats bat egitera goaz eta horretarako gonbidapena luzatzen dizuegu”.

14.-EMAKUMEEN AUTONOMIAREN ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN DEFENTSAN.

Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak “Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako “Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 Lege organikoa aldatuz. Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarrizko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako eraso honen aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) PPK aurkeztutako “Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako” legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.

2) Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteke erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.

3) Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala bermatzea.

4) Udal honek, Haurdunaldien Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objektua arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeen Haurdunaldiaren Borondatezko E eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesional daudela bermatuz.

5) Udal honek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarritzkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.

6) Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.

7) Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.

8) Honako Pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Galladoni helaraziko zaie.

15.-MARTXOAREN 8KO MANIFESTUA.

Guztiok eta gutako bakoitzak, ez dugu bakarrik jendarte hau emakumeendako berdinagoa izan dadin lan egin, emakume eta gizonendako atsegina goa eta demokratikagoa izateko ere lan egin dugu. Mugimendu horren barruan geure buruak kokatzeko, egun gaudenak gauden tokian egoteko, beste hamaika emakumeren jarraitutasunari eta irmotasunari esker izan dela aitortzea bidezkoa da.

2014ko martxoaren 8an ospatzen dugu “Nazioarteko Emakumeen Eguna”, emakumeok gure askatasuna edozein adinetan, bizitza osoan zehar, espazio guztietan eraikitzen jarraitu behar dugunaren ideiarekin. Izaki sozial moduan autonomia eta independentzia osoa nahi dugu, gure jendartean genero arrazoiengatik dauden ezberdintasunak eta diskriminazioak gaindituz. Eskubideak guztiondako izan behar dira, munduan emakumeak gehiago direla, baina erabaki eremuetan eta publikoan gutxiago direla gogora ekarriz.

Abortoaren legea azpimarratu nahi dugu, non moralitatearen izenean erabaki hartzeko aukera debekatzen zaigun, eta bertzetik abortu ilegala bihurtzen den heinean segurtasun eta kalitatezko zerbitzua galtzen dugu, emakumearen arriskuak areagotuz.

Krisi ekonomiko eta sozialaren garai hauetan funtsezkoa da eskubideetan murrizketa gutxiago egon daitezen ahaleginak gehitzea. Datuek diote pribatizazioek, ezkutuko

enplegua, lan eta bizitza baldintzetan prekarietatea...dakartzatela. Eta emakumeek badute zeresana, beste behin ere, krisi garai hauetan kaltetuenak baitira.

Krisiak, kontziliazio-erantzunkidetasun zein berdintasun eta zuzentasun materietan lortutako eskubideetan eta aurrerabideetan atzera egiteko arriskua dakar berarekin, lanaren sexuaren araberako banaketak eta honek sortzen dituen ezberdintasunak areagotuz. Baina aldi beran, krisiak, ekoizpen eta kontsumo modu berriak ezartzeko eta zainketaren inguruko egiturak eta harremanak berrantolatzeko aukera eta erronka erakusten du, gizonen eta emakumeen artean lan ordainduaren eta ordaindu gabearen banaketa bidezkoa ezarriz.

Genero abantailen amaiera ez litzateke mehatxu pertsonal moduan hartu beharko, herritarrak garen guztiok bizi kalitatea hobetuko duen garapen sostengarriaren alde lan egiteko aukera bezala baizik. Ingurumen-osotasuna, ekonomia bideragarritasuna, egungo belaunaldien jendarte justuagoari arreta jartzen dioten etorkizuna eraiki dezakegu, non gizonak eta emakumean pertsona bezala ezberdinak baina aukeretan berdinak izanen diren.

Honengatik guztiarengatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa eta 2014ko martxoaren 8a ospatzeko gonbitea egiten dizue, erankudeek eta kolektiboek ospatzeko antolatu dituzten ekitaldietan parte hartuz.

16.- NAFARROAKO LANDA EREMUKO ESKOLAK: DIRU LAGUNZTA ESKAERA.

Ikusirik Arantzako Eskolak aurkeztutako idatzia, diru laguntza eskatuz Nafarroako Landa Eremuko Eskolen IV.jardunaldiak antolatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako jardunaldiak burutzeko 100,00 euroko diru laguntza ematea.

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

